

11. Boletina

2013ko UZTAILA

LAN OSASUN BOLETINA

AURKIBIDEA:

- 1- OSALAN-EN KUDEAKETA PLANA 2013**
- 2- OSALANEN JARDUNA SILIKOSIARI ETA GAITZ PROFESIONAL ZANTZUEI BURUZ**
- 3- PREBENTZIOAN MURRIZKETA BERRIAK**
- 4- IRREGULARTASUN EKONOMIKOAK OSALANEN**
- 5- IRUÑAKO SCHINDLER ENPRESAN LAN OSASUNAREN ALDEKO LANUZTEAK**
- 6- LAN-ISTRIPUEN TAULA HEGO EUSKAL HERRIAN, URTARRILA- UZTAILA 2013**

Boletín N°11

julio 2013

1.- OSALAN-EN KUDEAKETA PLANA 2013

Osalanek bere 2013. urteko Kudeaketa Plana aurkeztu du. Txosten horretan biltzen dira EAEn gauzatu beharreko jarduera nagusiak, lan-arriskuen prebentzioari dagokionez.

Kudeaketa Plana aurkeztu den garai hau eskandaluzko murrizketen garaia da Osalanen, eta hori da aipatu beharreko lehen puntua. Izan ere, Osalanen aurrekontuari %15eko murrizketa egingo zaio aurten, eta horri gehitu behar zaio azken hiru aurrekontu-ekitaldietako %40tik gorako murrizketa metatua. Osalanek bere jarduna, gutxienezko kalitate-parametro batzuen barruan, burutzeko behar dituen baliabideez husten eta gabetzen aritzen dira.

Hala ere, horrelako murrizketek Osalanen jarduna baldintzatuko dutela Kudeaketa Planean adierazi beharrean, honelako baieztapenak jasotzen dira: *“bizi garen garai zailari dagozkion murrizketak”* eta *“akuilu bat izango dira gure ekintzei al bait atarramendu handiena ateratzeko eta gure baliabideak al bait hobeki erabiltzeko”*. Abiapuntu horrek berak sinesgarritasunaren zati handi bat kentzen dio Planari, ez baita errealista pentsatzea aurrekontu-murrizketa hori ez dela sumatuko Osalanen jardunean.

Planean jasotako jarduerak aztertuz gero, berehala konturatuko gara Planaren jarduera gehienak aurreko urteetako jardueren jarraipena direla. Jarduera bakoitzaren balioespena egin gabe jarduera berberak errepikatuko dira, askotariko ekintzak aurreikusita daudelako itxurak ematearren.

Halaber, programa-ildo nagusiak oso generikoak dira. Asmo hutsezko adierazpenak dira, planik edo baliabide zehatzik jaso gabe. Aurreikusitako ekintzak ez datoz bat Planak, teoriarik behintzat, izan behar duen helburu nagusiarekin: lan-arriskuen prebentzioa hobetzea enpresetan.

Plana hamahiru jardute-arlotan sailkatu da. Jardute-arlo horietako baten bat aztertzeak merezi du:

1.- Arazoaz jabetu eta sentiberatzea

Atal honetako ekintzek enpresariak dituzte helburu. Askotan esan dugunez, patronalaren arazoa ez da kontzientziario edo informaziorik eza, baizik eta prebentzio-arloko legeak bete gabe uzteak ez dakarkiola batere kosturik, ez baitago benetako kontrolik enpresen gainean.

2.- Herri-erakundeen konpromisoa eta administrazioen arteko koordinazioa

Txostenaren arabera beharrezkoa da Osalanen eta Lan Ikuskaritzaren arteko lankidetzaren egonkorra (Lan Ikuskaritza eskualdaturik dago EAera), baina ez da zehazten nola gauzatuko den asmo hori. Gaur egungo egoera oso urruti dago lankidetzaren horretatik, ez baitago koordinazio nahikorik enpresetara iristeko.

3.- Kontrola eta aholkularitza, lan-arriskuen prebentzioaren arloan, batez ere ETEentzat.

Bisitak, informazio-kanpainak eta ETEentzako aholkularitza-lanak egitera mugatzen da. Aurreko puntuetarako esandakoa hemen ere errepika daiteke, ez da zehaztu enpresak kontrolatzeko inolako mekanismorik.

4.- Prestakuntza eta ikerketa

Atal honetan jasotakoa sinesgarritasun gutxikoa da, zeren prebentzio-ordezkarientzako prestakuntza-ikastaroak etenda daude. Izan ere, Enplegu Sailak ez dio oraindik konponbiderik bilatu arazo horri, eta ikastaroen alde teknikoak emateko behar zituen diru-baliabideak ez dituela dio. Ondorioz, bada urtebetea baino gehiago prebentzio-ordezkariek ez dutela prestakuntzarik jaso beren eginkizuna behar bezala betetzeko.

5.- Osasunaren zaintza

Lanbide-gaixotasunak jakinarazteko Osakidetzak duen sisteman ez da aurrerapausorik eman. Gauzatu ez den proiektua da oraindik herritarren historia mediko-laborala norberaren historia klinikoan txertatzea.

6.- Arrisku ergonomikoen eta psikosozialen prebentzioa

Ergonomiarekin loturiko ekimenak garatze aldera berriazko lantalde bat sortzeko helburua jasota dago. Helburu horretarako bideratuko diren baliabideak psikosozilogiara bideratu zirenen parekoak badira, emaitza uste izatekoaren azpitik egongo da.

Halaxe da, psikosozilogian diharduen taldea 2 lankidez osaturik dago. Arlo horretan eta EAE osoan aritzeko, talde hori txikiak da guztiz. Hainbesteko garrantzia duen gai horretan Osalanek ez du besterik egiten enpresetan informazioa jasotzea eta arrisku psikosozialen egoerari buruzko mapa bat egitea baino. Bistakoa da enpresa gehienek ez dutela eginda arrisku horien ebaluazioa, baina hala ere ez da inolako neurririk hartu.

Azterturiko puntuek ondo islatzen dute nolakoa den aurtengo Kudeaketa Plana: handinahikoa, orokorregia, enpresak lotzeko indarrrik gabea, eta aurrera eramateko behar den aurrekontu-hornidurarik bakoa.

Egia esan, ez genuen gauza handirik espero oraingo gobernutik lan-osasuneko arloan. Horretarako, borondate politikoa behar da patronalari aurre egiteko, prekarietatearen aurka aritzeko, eta Prebentzio Legea betearazteko. Ekintza sindikala eta negoziazio kolektiboa dira gure bide bakarra osasuna lantokietan zaintzeko.

2.-OSALANEN JARDUNA SILIKOSIARI ETA GAITZ PROFESIONAL ZANTZUEI BURUZ

Osalanek betidanik ozen aldarrikatu izan du gaixotasun profesionalei aurre egiteko ekintzak bultzatu dituela, batetik langileen artean izan duten hazkundeagatik eta bestetik, gai honetan behar baino kasu gutxiagoren berri ematen zaiolako administrazioari. Halere, ekintza horiek ez dira hitzetatik hara joaten, eta hein handian Osalanek ikusle hutsaren tokia hartzen du.

Marmoldegietako kanpaina

Gaitz profesionalen inguruko lan-ardatz bat zela eta, Osalanek 2009an kanpaina bati ekin zion marmoldegietan. EAEko hiru lurraldeetako 37 enpresatara egin zuten bisita, eta kristal-silizea erabiltzearen ondorioz izan zitezkeen balizko arriskuak identifikatu ziren.

Kanpainaren ondorioak ez dirudite behin-betikoak, baina antza, langileen salaketa tarteko ez bada bederen, gaur arte Osalanek neurri prebentiboak besterik ez ditu ezarri: lantoki hezeetan lan egitea, aireztatze eta garbitasun egokiarekin silize hautsa heda ez dadin; langileentzako prestakuntza eta sentsibilizazio kanpainak; berriazko babes pertsonala eta neurri higieniko egokiak, baita silizearen inguruko osasuna zaintzeko protokolo bereziak egin beharra ere.

Haatik, Osalanek behatu zituen egoeretan enpresek arrisku laboralen prebentzioko arauak urratu zituzten, eta sarri baita azpikontrataturako prebentzio zerbitzuek ere, prebentzio zerbitzuen araudia eta silikosiaren inguruko berriazko araudia ez baitzuten bete.

Lehen taldeko kasuetan –arau-haustea enpresak egiten duenean– ez da nahikoa prebentziolari buruzko proposamenak egitea; modu honetako erakunde batek ofizios jakinarazi beharko lioke Lan Ikuskaritzari zen arau-hauste gertatu diren, hartara erabakiak hartze aldera.

Bestalde, arauak prebentzio zerbitzuek hausten dituztenean, Osalanek zigorrak ezartzea espero beharko litzateke. Hau Osalanen eskumen bat da, praktika okerrak gertatzen direnean, berariazko protokolo medikuak aplikatzen ez direnean edota langileei prestakuntza eta informazioa ematen ez zaienean silizearekiko esposizioari buruz.

Gaixotasun profesional zantzuen aurreko jokabidea

Osalanek nabarmen hutsegin du gaitz profesional honen arazoa dela eta. Aipa ditzagun ELAko lan-osasun arloak ezagutu dituen azken bi silikosi kasuak bata Gipuzkoan eta bestea Bizkaian.

Osalani eskatu zaionean kasua ikertu eta gaixotasun profesionalari buruzko txosten bat egin zezala, gaitzaren eta lanean izandako silizearekiko esposizioaren artean harremanik ba ote dagoen erabakitzearen (kausa-efektua), erakundeak lurraldearen arabera era desberdinean jokatu eta erantzun du. Gipuzkoan erantzun du esanez “definizioz silikosisia silizio-dioxidoarekiko esposizioa izan denean sortzen da”, eta INSSera igorri gaitu. Bizkaian, berriz, txosten bat egin du langileak arrisku laborekiko izan duen esposizioaren eta gaitzaren arteko erlazioa zehazteko, eta osasun zaintza behar bezala egin ote den ere egiaztatu du.

Egoera hau ezin da inola ere onartu. Ezin da honelako desberdintasuna izatea onartu, itxuraz barne-desadostasunen ondorio dena. Osalanek baztertu egin du jardunbideak finkatzeko aukera. Ondorioz, kalte nabarmena egiten zaie gaitz profesionala beren bizitza laborean gai horiekiko esposizioaren ondorioz jasan duten langileei.

Bizkaiko txostena aztertuta, argi geratzen da silikosiak jota dagoen beharginak bere bizitza laborearen zati handi batean kristal-silizearekin eta zarata pairatuz egin duela lana. Halaber, txostenak aditzera ematen duenez, enpresak ez du neurketa egokirik egin; ez dizkio langileari babes-ekipo egokiak eman, eta osasun zaintza ere ez da taxuz bete, silizearen inguruko protokoloa ez baita aplikatu.

Ondorioz, txostenak ebatzen du enpresak prebentzioari dagokionez huts egin duela, eta beraz, ardua duela, baina ezin ahaz daiteke prebentzio zerbitzuaren errua, ez baitzuen silizearen protokoloa aplikatu, jakinik langile honek marmoldegi batean egiten zuela behar eta lanerako gai zela kalifikatu zuen. Gainera, langileari hipoakusia bat detektatu ziotenean, hots, beste gaixotasun profesional bat, ez zion honen berri eman Osalani, prebentzio zerbitzuak honetara derrigortuta egon arren.

Osalanek eskumenak ditu prebentzio zerbitzuen gainean, eta horregatik espero izatekoa litzateke kasu honetan zigorraren bat ezartzea, zerbitzu honek hainbat betebeharrak baztertu baitzuen, eta honek eragin du langile bati gaixotasun bat (silikosisia) berandu detektatzea, eta beste arazoa medio (hipoakusia) prestaziorik ez eskatu izana. Bada, horrelako ezer ez da gertatu.

Kasu honek argi asko erakusten du gaixotasun profesionalari buruz Osalanek duen “inplikazio handia”: prebentzio zerbitzuak ez ditu zigortzen beren betebeharrak hutsegiten dituztenean, ezta kasua Lan Ikuskaritzari jakinarazi ere, esku har dezan. Baina, noski, dibulgazio kanpaina politik egiten ditu gero, jardunaldi eta guzti, urteko Kudeaketa Plana apaintzeko.

3.- PREBENTZIOAN MURRIZKETA BERRIAK

Lan arriskuen prebentzioari ematen zaion garrantzia ikusteko eta bai Gobernu eta gainerako erakundeentzat prebentzioa bigarren mailako kontua dela egiaztatzeko, hona hemen adibide egokia.

Ekainaren 28an, ostirala, Espainiako Ministro-Kontseiluak “ Ekintzaileen Legea” deritzana onartu zuen. Bertan lan arriskuen prebentzioaren gaia ere aipatzen da, beste batzuen artean.

Aipatutako Legeak, enpresen hazkundera garatzeko neurriak ezartzen ditu puntu batetan. Horretarako zenbait ekintza ezartzen dira enpresen karga administratiboak murrizteko, eta bide horretan, enpresa txikiek lan arriskuen prebentzioa zuzenean bere gain hartzeko aukerak zabaldu egiten ditu.

Honela, lege berri honek, 25 langile baino gutxiagoko enpresen prebentzioaren ardura, enpresarien eskuetan uzten du. Larriena zera da: prebentzioa “karga administratibo” bezala izendatzen duela. Legeak kostutat hartzen du prebentzioa, inbertsio moduan izan beharrean.

Gogora dezagun nola zegoen araututa gai hau lehenago:

- Lan Arriskuen Prebentziorako Legeak (1995), aukera ematen zien sei langile baino gutxiagoko enpresei prebentzio jarduera zuzenean bere gain hartzeko (salbuezpeneko kasu batzuetan izan ezik eta hainbat baldintzakin).
- 2009.ean beste lege batek, hamar langile baino gutxiagoko enpresei zabaldu zion aukera hori.
- Eta azkenik 2013an , Ekintzaileen Lege berriak beste urrats bat ematen du eta hogeitabost langile baino gutxiagoko enpresa guztiek izango dute lan arriskuen kudeaketa zuzena egiteko aukera.

Hego Euskal Herriko enpresa gehienak enpresa txikiak direla kontutan izanda, 25 langile baino gutxiagokoak, prebentzioa enpresaren eskuetan lagatzearen ondorioak guztiz ezagunak ditugu: prekarietate gehiago, prebentzio gutxiago eta istripu gehiago. Kontutan har dezagun lan istripurik gehienak enpresa txikietan ematen direla gaur egun.

4.- IRREGULARTASUN EKONOMIKOAK OSALANEN

Martxoan jakitera eman zen Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren 2010.eko txostena. Bertan garai hartan Pilar Collantesek zuzentzen zuen Osalanen hainbat irregulartasun ekonomiko jasotzen dira.

Beste hainbat punturen artean, 2010.urtean zehar, krisi garaian, Osalanek merchandising materialean gastaturiko dirutza nabarmentzen du, 340,000 euro alegia. Hotel eta hegaldietan, 189,000 euro izan ziren, kongresu baten antolakuntzan 276,312 euro, formakuntza areto bat egokitzean 347,379 euro, edota Irungo PINeko kanpainan 237,800 euro.

Langileen artean hedatuta zegoen Osalan gastu ez -funtzeskoetan diru asko gastatzen ari zelari buruzko iritzia. Adibide bezala hor ditugu 16,548 euro balio zuten 42 e-book edota Osalanek antolaturiko jardunaldietan partehartzaileei emandako opariak. Behin, bizikleta tolesgarriak ere oparitu zituzten. Are gehiago, informe berean, Osalanen egindako obra ezberdinak burutzeko esleipenak legez kontra egin zirela azpimarratzen da.

Txosten hontan jasotako datuak oso larriak iruditzen zaizkigu. Are larriagoak bizi dugun krisi egoera honetan kokatzen direla jakinda eta Osalanen aurrekontuak murrizketa nabarmena jasan duela dakigunean. Erakunde publiko honen aurrekontua politika eta lan ildo eraginkorrak eta errealak bultzatzeko erabili beharko litzateke. Langileek oraindik ere lanean osasuna galtzen dute, enpresei ez zaielako prebentzio neurri egokirik exijitzen.

5.- IRUÑAKO SCHINDLER ENPRESAN LAN OSASUNAREN ALDEKO LANUZTEAK

Igogailuak egiten dituen SCHINDLER enpresako langileek bi ordu eta erdiko lanuztea egin zuten lan istripua izan zuen lankide baten alde eta era berean enpresari prebentzio protokoloa bete dezala exijitzeko. Zauritutako langileari, igogailu baten motorra konpontzen zegoela, eskua harrapatua geratu zitzaion. Horren ondorioz, motorraren eta igogailuaren artean tratatuta gelditu zen.

Nafarroako Gobernuak zegokion ikerketari ekin zion, enpresari zigorra ezarriz eta bi prebentzio neurri hartzera behartuz:

- 1.- Era honetako konponketetan bete beharreko protokoloa ezartzea.
- 2.- Horrelako istripu bat berriro gerta ez dadin igogailuetan zenbait aldaketa tekniko egitea. Hau da, konponketa egiten den bitartean motorra martxan jartzeko aukerarik ez izateko aldaketak egin behar zituen enpresak.

Halaber, Nafarroako Gobernuak esandakoa bete beharrean, enpresak epaitegietara bideratu zuen gaia bere desadostasuna agertuz.

Guzti hau gutxi balitz, enpresak langilea zigortu egin zuen eta garatzen zituen formakuntza funtzioak kendu egin zizkion, honek suposatzen zion kalte ekonomikoarekin.

Egoera honi erantzuteko, langileek bi ordu eta erdiko lanuztea egin zuten, enpresaren jarrera salatu eta prebentzio protokoloaren betearaztea exijitzeko. Lanuztea egin zen egun eta ordu berean, enpresak Nafarroako Gobernuaren ebazpenaren kontra bultzatutako epaiketa ospatzen ari zen.

6.- LAN-ISTRIPUEN TAULA HEGO EUSKAL HERRIAN, URTARRILA- UZTAILA 2013

HEH	LAN-ISTRIPUAK
BIZKAIA	8
GIPUZKOA	4
ARABA	3
NAFARROA	3
GUZTIRA	18